



EUSKADI FUNDAZIOAREN ORBEA ORCA OMR BIZIKLETA BATEN ZOZKETAREN LEGE-OINARRIAK

1. ERAKUNDE ANTOLATZAILEA

Caja Laboral Popular Coop. de Créditos –aurrerantzean LABORAL Kutxa–, F75076935 zenbakidun IFK eta helbidea Arrasaten (Gipuzkoan) –Jose Maria Arizmendiarieta pasealekua, zk.g., 20500– duenak, promozio-helburua duen nazio osorako ZOZKETA bat antolatu du, 6. Atalean (“Parte-hartzaileak”) xedatutakoarekin bat etorritik.

2. ZOZKETAREN EREMUA ETA DOAKOTASUNA

Euskadiko Autonomia Erkidegoan jokoa arautzen duen azaroaren 8ko 4/1991 Legean aurreikusitakoaren babesean antolatu da zozketa hau, doakoa izango da eta borondatezko izaera izango du. Beraz, sari hori irabazi ahal izateko ez da beharrezkoa izango inolako kuotarik edo kantitate gehigarririk ordaintzea.

3. ZOZKETAREN XEDEA ETA MEKANIKA

Parte hartzeko, erabiltzaileek hau egin beharko dute:

1. Zozketa honetan parte hartu nahi dutela berretsi, horretarako sortutako tresnan izena emanez: <https://www.your-promos.com/pub/RApkMAX>
2. Berariaz onartu zozketaren lege-oinarri eta baldintza hauek.
3. Euskadi Fundazioaren newsletterreko harpidetza berretsi, horretarako prestatutako laukitxoak markatu.

4. SARIA

- Orbea Orca Omr bizikleta bat, 55 neurrikoa. Zehazki, zozketaren sustapenarekin batera doazen irudietan ageri dena.
- Bizikleta gaur egun dagoen bezala emango zaio irabazleari, eta ezin izango du haren elementurik aldatu, ezta neurria edo koloreak ere.
- Bizikleta ez da inoiz erabili, baina baliteke markaren bat izatea LABORAL Kutxaren instalazioetan erakusgai egon den bitartean egindakoa.
- Irabazleak saria onartu beharko du, eta LABORAL Kutxak eskatutako informazioa eman, mezu pribatu edo mezu elektronikoko baten bidez, gehienez 12 orduko epean, edo egiten zaion lehen deian. Hori egin ezean, saria erreklamatzeko eskubidea galduko du, eta beraren lekua ordezkotako gisa izendatutako pertsonak hartuko du, zozketan ateratako hurrenkerari jarraikiz.
- Irabazleak aukeratzen duen LABORAL Kutxaren bulegoan emango zaio bizikleta. Muntatuta, doituta eta erabiltzeko prest bidaliko da.

5. IRAUPENA

Erabiltzaileek 2021eko otsailaren 11tik aurrera parte hartu ahal izango dute lehiaketan, eta epea otsailaren 28an amaituko da, 23:59an.

6. PARTE-HARTZAILEAK

Hirugarren atalean (“Zozketaren mekanika”) xedatutako urratsak modu egokian betetzen dituzten 18 urtetik gorako pertsona fisiko guztiek parte hartu ahal izango dute zozketan.

Zozketatik kanpo geratuko dira:

- LABORAL Kutxaren aurrean berankortasun-egoeran edo beste edozein egoera irregularrean dauden LABORAL Kutxako bezeroak.



EUSKADI FUNDAZIOAREN ORBEA ORCA OMR BIZIKLETA BATEN ZOZKETAREN LEGE-OINARRIAK

LABORAL Kutxaren bezerotzat hartuko dira saria eskuratu aurretik hilabetetik gorako antzintasuna dutenak eta entitatean gutxienez zerbitzu edo produktu baten titularrak direnak.

7. IRABAZLEA ETA ORDEZKOAK AUKERATZEA, JAKINARAZPENA ETA SARIA EMATEA

Epea amaitzean, hau da, 2021eko otsailaren 28an, eta aplikazio informatiko batekin egindako ausazko zozketa bidez, pertsona irabazlearen izena aterako da baldintzak betetzen dituzten parte-hartzaileen artean. Irabazleari mezu pribatu bidez helaraziko zaio jakinarazpen ofiziala, dagokion sare soziala erabiliz, eta gero, posta elektronikoko edo telefono bidez. Jakinarazpena ez da behin betikoa izango hura LABORAL Kutxaren web orrialdean eta sare sozial ofizialetan argitaratu arte.

Parte-hartzaile saridunak saria onartzen duen ala hari uko egiten dion berretsi beharko dio LABORAL Kutxari, telefonoz, posta elektronikoz edo bulegoetan sinatutako hartu-agiriaren bidez, saria argitaratzen eta/edo jakinarazten den unetik 12 orduko epean.

Parte-hartzaileak saria onartzen duela edo hari uko egiten diola berresten ez badu sariaren jakinarazpena jaso duen unetik 12 orduko epean, sariari behin betiko uko egiten diola ulertuko da. Horrenbestez, haren partaidetza ondorerik gabe geratuko da, eta LABORAL Kutxak sariari berariaz uko egiten zaionerako jarduketara erabili ahal izango du, arestian deskribatu den bezala.

Parte-hartzaileak sariari uko egiten badio edo ezin izan bada berarekin harremanetan jarri, ez du ordainik jasotzeko eskubiderik izango. Bezero saridunak sariari uko egiten badio, ezin izan bada berarekin harremanetan jarri edo arestian adierazitako baimena ematen ez badu, saria ordezkoren zerrendako lehen postuan dagoenari esleituko zaio, sustapenean parte hartzeko ordena errespetatuz. Saridunak ezin izango du sariaren ordezkor bat eskatu.

8. SARIAREN ZERGA-SISTEMA

Zozketa honetako sariak zerga-tratamendu hau izango du: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 35/2006 Legean, 439/2007 Errege Dekretuan eta kasuan kasuko PFEZren inguruko zerga-araudian aurreikusitakoa. Sariari aplikatuko zaion zerga-atxikipenari dagokion zenbatekoa LABORAL Kutxak ordainduko du.

Era berean, LABORAL Kutxak bere gain hartuko ditu Zerga Administrazioaren aurrean dagozkion informazio-betebeharrak.

9. IRUZKINAK EDO IRITZIAK ARGITARATZEA

Ez da onartuko iruzkin edo iritzi desegokirik, iraingarrikerik edo diskriminatzailekerik, edo hirugarrenen eskubideak urratzen dituenik. Era berean, ez dira onartuko partikularren aurka egindako iruzkinak, betiere ohorea, norberaren eta familiaren intimitatea, eta norberaren irudia izateko eskubidearen printzipioak urratzen badituzte. Ez gara izango zozketan parte hartzen dutenen iruzkinak eragin ditzaketen kalteen erantzule, ezta parte-hartzaileen sentikortasuna mindu badezakete ere.

10. ERRESERBAK ETA MUGAK

LABORAL Kutxak ez du bere gain inolako erantzukizunik hartuko saridunek emandako datuetan akatsen bat badago eta horrek haien identifikazioa galarazten badu.

LABORAL Kutxak ez du bere gain inolako erantzukizunik hartuko saria ematean edo hura erabiltzean gerta litezkeen gorabeheren ondorioz, ezta berari ez dagozkion arrazoiengatik parte-hartzaileak saria jasotzean gerta litezkeen atzerapen edo hutsegiteen ondorioz ere.

LABORAL Kutxak ez du bere gain inolako erantzukizunik hartuko zozketan parte hartzeko erabiltzen diren zerbitzuak aldi baterako erabiltzerik ez egoteagatik edo haien funtzionamendua eteteagatik, erabiltzaileek iruzurrez erabiltzeagatik eta, bereziki, baina ez eskusiboki, Internet bidez orrialdeetan sartzean eta parte hartzeko erantzunak bidaltzean gerta litezkeen akatsengatik gertatzen diren kalte-galeren ondorioz.

LABORAL Kutxak eskubidea izango du sustapenaren xede onerako aldaketak egiteko, horretarako bidezko arrazoiak daudenean edo sustapena oinarri hauetan jasotzen den moduan gauzatzea galarazten duten ezinbesteko arrazoiak daudenean.



EUSKADI FUNDAZIOAREN ORBEA ORCA OMR BIZIKLETA BATEN ZOZKETAREN LEGE-OINARRIAK

LABORAL Kutxak eskubidea izango du zozketaren iraunaldia luzatzeko edo geroratzeko, baita lege-oinarri hauek interpretatzeko ere.

Era berean, enpresa antolatzaileak ez du inolako erantzukizunik izango aipatutako kasuren bat gertatzen bada, edo saria baliatzean gerta litezkeen kalte-galeren ondorioz.

11. DATUEN BABESA

Zure datuen tratamenduz arduratuko den enpresa LABORAL Kutxa izango da (IFZ: F-75076935; eta egoitza soziala: Jose Maria Arizmendiarieta pasealekua, zk.g., 20500, Arrasate, Gipuzkoa).

Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (EB) eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak ezarritakoarekin bat etorriz, Parte-hartzaile bakoitzak, lege-oinarri hauek onartzen baditu, ulertuko da badakiela bere datu pertsonalek LABORAL Kutxaren tratamendua jasoko dutela, zozketako parte-hartzea izapidetzeko eta, irabazlea izanez gero, sariaren berri emateko, baita saridunaren izena eta/edo irudia argitaratu, erreproduzitu eta hedatzeko ere, LABORAL Kutxak egokitzat jotzen dituen bitarteko, euskarri eta formatuen bidez (hala nola, adibide gisa baina inolako mugarik gabe, prentsaren, irratia, telebista, Interneten eta abarren bidez), eta aipatutako jardura horiek ez dute ordainik edo onuririk jasotzeko eskubiderik emango.

Datuak ikusteko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak eta, era berean, datuen tratamendua mugatzeko eta beste leku batera eramateko eskubideak erabili ahal izango dituzu, zure nortasuna egiaztatuz (NAN edo agiri baliokidearen bitartez), protecciondatos@laboralkutxa.com helbide elektronikora idatziz edo ohiko posta elektronikoen bitartez, honako helbide honetara idatziz: CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO, Jose Maria Arizmendiarieta pasealekua, zk.g., 20500 – Arrasate (Gipuzkoa).

Kontsulta ezazu Bezeroen Datuak Babesteko Politika hemen: <https://www.laboralkutxa.com/eu/datuen-babesa>

12. OINARRIAK ONARTZEA

Zozketan parte hartze hutsak oinarri hauek onartzen direla esan nahi du. Beraz, parte-hartzaileak adierazten badu oinarri hauek guztiak edo haietako batzuk ez dituela onartzen, sustapenetik kanpo geratuko da. Horren ondorioz, LABORAL Kutxak ez du parte-hartzaile horrekin bereganatutako obligazioa bete beharrik izango.

13. LEGERIA APLIKAGARRIA ETA JURISDIKZIOA

Lege-oinarri hauek Espainiako legearen arabera arautuko dira. Bergarako epaitegiek eta auzitegiek oinarri hauen baliozkotasunarekin, interpretazioarekin edo betetzearekin lotuta sor litezkeen erreklamazioak edo eztabaidak ebazteko eskumena izango dute.